

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 236. alea - 2019ko urtarrila



**Agur Kasinoaren  
eraikin enblematikoari**

**sasoi**iko

ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: tekarterapia (INDIVA)-drenaje linfáticoa -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresioak \* Dietista \* Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoi@hotrail.com

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

**50 URTE**

**BURU - ZURI**  
Taberna

- Otarteoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA

Jarri zure publizitatea  
Berriketan aldizkarian!

*Zuhatz*

943 191 383

berriketan@zuhatza.com



*naturaren bel denean  
Aurten zure arrainak...*

**Haztik**  
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA  
tef.: 943 02 99 63  
e-mail: hazitik@gmail.com



*Calbeton*

JATETXEA

**Agustín**  
**Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platerra  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**A**  
**D**

**ASESORIA DEBA C.B.**  
JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Eduarne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com  
www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127  
20820 DEBA (GIPUZKOA) Fax: 943 192 482

**ITXAS GAIN**  
Taberna  
**ITXAS GAIN**

Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA




**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA



**URDAITEGIA**  
**AITTOLA**  
**HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA



**Seven Clovers**  
Irish pub

943 191 295



**AUKERA**  
INMOBILIARIA


www.aukera-inmobiliaria.com  
Aukerarik onena!

943 12 13 95

 447

**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818



**Bar LOREA**

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



# AURKIBIDEA

04

GUTUNAK

“Ikusten ez duguna”,  
“Zer etorkizun du  
kabalgatak?”,  
“Eskerrik asko, Joseba!”...

08

KRONIKA

Abenduan ospatu den  
Animadeba jaialdiaren  
nondik norakoak, Aitor  
Oñederraren hitzetan

10

ELKARRIZKETA

*Debarrak munduan:*  
2004. urtetik atzerrian  
bizi den Itziar Lazkano  
debarrarekin hizketan

12

IRUDI GALERIA

Eguberriei  
eta urte hasierari  
errepasoa,  
iruditan

16

LITERATURA

Literatur lanak  
aitona-amonentzat.  
Arbil elkartearen banatu  
dira lehiaketako sariak

## Koordinatzaile berria du Zuhatza Euskara Elkarteak

Terese Larrañaga Iriarte (Deba, 1990) izango da aurrerantzean Zuhatza Euskara Elkartearen koordinatzailea, Koldo Aperribairen lekukoa hartuta.

Ibilbide luzea egin du Koldok euskara elkartearen; 2009. urteaz geroztik egin ditu koordinazio lanak bertan, burubelarri. Baina, urte berriarekin batera, utzi egin du postua eta Tereseri egokitu

zaio lekuko aldaketari eustea.

Euskara elkartearen aisialdi esparruan murgilduta ibili ostean -Kolare Anitz taldeko begirale arituz, besteak beste-, Terese elkartearen barne funtzionamenduko beste hainbat arlotan ere ibili da lanean azken garaiotan: bazkideen datubasea eguneratuz, udalekuetako izenematea kudeatuz edota administrazio

kontuetan lagunduz, adibidez. Zuzendaritzako kide da 2017az geroztik.

Eskerrik asko, Koldo, urteotan egingadako lanarengatik eta zorte on zure ibilbide berrian! Bide batez, mila esker zuri ere, Terese, hemendik aurrerako ardura eta erronkei gogotsu heltzearen.

*Zuhatza Euskara Elkarteak*

BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

Elkartearen e-maila:  
[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

ARGITARATZAILEA

**Zuhatza**  
euskararen elkarteak

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Saiburordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

**Argitaratzailea:**

Zuhatza Euskara Elkarteak. Deba.

**Koordinatzailea:** Izaro Aulestiarte

**Hizkuntza ardura:** Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:** Erredakzio taldea

**Publizitatea:** Joseba Escudero, Koldo Aperribai eta Terese Larrañaga

**Logotipoaren diseinua:** Iñaki Elosua

**Maketazioa:** Leire Rubio

**Tirada:** 1.400 ale

**Maiztasuna:** Hilabetekaria

**Inprimategia:** Euskalinpri

**Lege gordailua:** SS-246-2009

ISSN 2171-7656

**OHARRA:**

*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com).

## Datorren urtera arte!

Gabonak pasa eta gozatu ondoren, eskerrak ematera gatozkizue. Denok jakin eta ikusi izan duzuen bezala, abenduaren 24an Olentzero eta Mari Domingiren bisita izaten dugu herriko kaleetan zehar. Hitzordu honek ere, beste edozein ekimenek bezala, ikusten ez diren hainbat prestaketa lan eskatzen ditu aurrez, eta ezin izango lirateke aurrera eraman herriko hainbat elkarteren parte-hartzerik gabe.

Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu ondorengo hauei guztiei: kaleak musikaz betetzen dituzten Luzaro ikastetxeko haurrei eta musika-

ko irakasleari, trikitilari taldeari, txistulariei eta Aitzuri abesbatzari. Mila esker, era berean, Olentzero eta Mari Domingiren laguntzaile lanetan aritu diren Goaz antzerki taldeko kideei eta Kolore Anitzeko partaideei, baita antolakuntzan eta salda eta txorizoa banatzen ibili diren Zubi guraso elkartekoei ere. Ahaztu gabe, noski, aldamenean izan ditugun beste norbanako guztiak ere.

Zerrenda hori aipatu ostean, esker bereziak eman nahi dizkiegu borondate osoz eta bihotz onez hainbeste urte-tan isilpean lagundu gaituztenei: Sukia

fruta-dendari, egun horretan banatzen ditugun fruitu lehorrak emateagatik; Gure Etxetxori, goizean elkartean bilatzeko aukera emateagatik, eta Ozio-Bideri, txorizoa eta salda prestatzeko sukaldari lanak eta elkarteko baliabideak musu-truk eskaintzeagatik.

Mila esker guzti-guztiori abenduaren 24ko eguerdi eder hau gurekin batera bizi eta gozatzegatik!

*Zuhatza elkartea, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera prestatzeko lantaldearen izenean*

## Ikusten ez duguna



Ikusten ez duguna ez dugu sentitzen, ez digu plazerik, tristurarik ematen.

Ikusten ez duguna gerta daiteke ezkutuan, zumardiaren txoko batean, ondo itxitako frontoian adibidez, eta horrela, nahita ez bada, ez dugu ikusiko.

Baliteke, izan ere, ikusten ez duguna ikusi nahi ez izatea, eta, beraz, patxadaz igarotzea Gabonak horrela. Bestela, igoal, ikusi nahi ez dugun horrek gure euskal-kontzientzian pizten digun ekaitzari begiratzera behar-tuak geundeke. Nahiago itsu kanpora



eta itsu barrura; bitartean algarak, tra-goak eta urte berri onak.

Baina, ikusten ez dugunak ere gertatzen jarraitzen du, ikusi ala ez. Horregatik, aurten, ezkutukoa biluztu dugu karteletan: ekaitz pertsonalak



eragiteko. Leherketa txikien baturak, ondotik, azkenean, baretasun erreala (kanpokoa eta barrukoa) ekarriko digulakoan.

*Debako Zezenketen Aurkako Taldea*

## Zer etorkizun du kabalgatak?

Abendua iristen denerako, egutegi-ko azken orria ikusten dugunerako, Gabonak etortzen zaizkigu burura. Askorentzat tristeak, beste askorentzat pozgarriak, haurrak inguruan izanez gero, zirrargarri eta desiratuak. Gabonak gehiago gozatzeko asmoz, kaleetan ospakizun eta ekitaldi ezberdinak antolatzen dira.

Ekitaldi horiek aurrera eramateko, Udalak jai batzordeko bilera ireki bat egiten du, batez ere gure etxeetako txikiak egun hauetaz goza dezaten. Bilera honetan, haurrentzako PINa, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera eta kabalgata izaten dira gai nagusiak. Batzar irekia den arren, ez da jendetsua izaten, baina hara non gure sorpresa! Beste gaiak jorratu eta kabalgataren kontuan buru-belarri sartu ginenean, aurreko urteetan erregeen laguntzaile lanak egin genituen sei pertsona soilik geratu ginen elkarri

begira, egoera ulertu ezinda. Orduan erori zen dena gure gain, ez zegoen antolatzailearik.

Gehiegi pentsatu gabe eta ekimena desagertzeko zorian zegoela ikusita, antolaketa lanei heldu genien, ezin bainuenen galdu kabalgataren momentu eder hori; erregeek, antortzek, apaingarriek, globoek, gozokiek eta bandaren soinuek liluratuta uzten dituzte haurren aurpegiak ilunabarrean. Nola liteke hau? Non dago momentu hau gustuko duen eta gozaten duen jendea? Jakina da azken urteetan jendea behar izan dela antolakuntzan, nola gera gaitezke eskuak gurutzatuta?

Kaleetan galdezka, herritar batzuek ekintza honi uko egiten diotela entzun dugu: ez direlako pertsonaia euskaldunak, ekintza erlijiosoa delako, eta abar. Herritar guztiok, edo ekintza hau ikustera hurbiltzen garenok behintzat, jakin badakigu hitzordu hau jen-

detsua izaten dela. Aurreko urteetan bezalaxe, aurtengo kabalgatan ere erregeei eskutitza emateko ilarak ordubeteko iraupena izan du. Non daude ekitaldi honi uko egiten diotenak? Zerri egiten diote uko, ekitaldiari edo antolaketaari?

Erregeak ez, baina gabonak bai? Eta Aste Santuko oporrak?

Agian, hurrengo urtera begira ez genuke kabalgata antolatu beharko, ea norbaitek faltan botatzen duen. Argazkietan hain ohikoak ditugun haurren harridura eta lilura aurpegi horiek galtzeko prest al gaude?

Ezin lerro hauek amaitu aurtengo kabalgata posible egin duten guztiei eskerrak eman gabe. Eta eskerrik asko, nola ez, hitzorduaz gozatzera gerturatu zineten guztioi ere.

*Erregeen kabalgatako  
2019ko antolatzaileak*

---

## Zorionak eta eskerrik asko, Joseba!

Zorionak, Joseba Egaña!! Ez bakarrik erretiroa hartu duzulako, baizik eta baita 36 urtez Debako udaltzainburu bezala lan ona egin duzulako ere.

Lerro hauen bitartez, zorionak eta eskerrik beroenak eman nahi dizkizugu urte hauetan zure agindupean lan egin dugunok.

*Debako udaltzainak*



## Stella Maris Berria-tik Aita Mari-ra

Erreskateko itsasontzi baten egunkaria. Atun arrantzatik pertsonak salbatzera



***“Gertu nago laguntzen  
hasteko, baina Pasai  
Donibanen nago lotua.  
Egutegi orriak erortzen doaz;  
bitartean, Mediterraneoan,  
Salbamendu Politikaren  
gabeziagatik, egunean  
bospasei pertsona itotzen dira”***



Bai, itsasontzia naiz. Zumaian, Beduako ontziolan jaio nintzen 2.001 urtean. Aita Mari dut izena, Gipuzkoako itsasertzean, bere txaluparekin, ekaitzaren mende eroritako arrantzale ugari salbatu eta, Donostiako Kontxan, olatuak gainditu ezinik zebiltzan batzuk salbatu nahian ari zela hil zen zumaian baten omenez.

Nire senide Stella Maris jubilatuta zuten aurrena; eta nire, Stella Maris Berriaren txanda heldu zenean, Itsas Salbamendu Humanitarioko neska-mutilak etorri eta, bigarren aukera eman didate, izen berria ipinita. Ezustekoa izan da niretzat atun arrantzatik pertsonak salbatzera pasatze hau. Lanbide berri honetarako, aldaketa batzuk izan ditut: erizaindegia eta dutxak brankan, sukaldea handitu, gela gehiago egin, eta ontzi-sotoa eta bizkarra egokitu, horrela, itsasoan erreskataturiko pertsonak jasotzeko. Nire 32 metroko luzera 15 tripulantzaillek gobernatuko dute, eta 150 pertsona jaso ditzakegu.

Berregokitu eta 2018ko irailaren 28an atera ninduten gizartera, Getarian, agurdantza eta guzti. Egun hartan 600 lagun baino gehiago etorri zitzaizkidan bisitan;

eta, dena esan behar da, oso harro sentitu nintzen.

Aurreko nire lanbidean, Stella Maris Berria nintzela, baxurako arrantzan ibilia naiz eta, Kantauriko eta Atlantiko itsasoetan atun, sardina, antxoa, berdel eta abarren bizitza eta heriotza ezagutu nituen. Garai hartako kontuen artean, arrantzale euskaldun eta senegaldarren eguneroko bizitzaren berri eman diezazueket; haiekin, nire euskaraz gainera, *fulaeraz* mintzatzen ikasi nuen. Bi hizkuntzetan jakin nuen, beraz, haien herriminaz, atunen garrasi isilaz, ekaitzez eta baretasun geldoaz. Hemendik aurrera, Aita Mari naizela, siriarrak, eritrearrak eta palestinarak, toki askotako pertsonak ezagutuko ditut; beren hizkuntzetan euren gerrahesaren eta gosearen, munduko injustiziaren berri emango didate.

Hauxe da nire bigarren aukera eta erreskatatuko ditugun pertsonentzako aukera berria ere bai.

Ia ahaztu zait zenbat aldiz galdetu didaten noiz itsasoratuko naizen. Irten aurretik betebeharrak mordo bat daukat burutzeko. Eta tramite horiek zertzeko, 165.257 pertsonak sinatu zuten bandera-

ren eskaera, Mediterraneo erdira joateko baimena izan dezadan. Denbora aurrera doa: gertu nago laguntzen hasteko; baina, Pasai Donibanen nago lotua. Egutegi orriak erortzen doaz; bitartean, Mediterraneoan, Salbamendu Politikaren gabeziagatik, egunean bospasei pertsona itotzen dira, eta 2018ko azarorako 2.100 pertsona izan ziren ofizialki itotzat emanak.

Urtearen lehen egunetan, *Berriketan*-erako orri hau idazten ari naizen unean, urtarrilaren 14an irten ahal izateko itxaropena daukat. Argitaratzen denean nork jakin, ordurako bidaian noan ala kaian loturik jarraituko dudun. Badira heriotza eragiten duten isiltasunak eta ez dut loturik jarraitu nahi jendea itsasotzen ari den bitartean.

**Eman miliak opari, nik, Aita Mari honek, arriskuan dauden pertsonengaino itsasbidea egin dezadan.**

Milia bat itsasbide (1.852 metro) egiteko 34 euro behar ditut.

Nire kontua Laboral kutxan: ES92 3035 0235 22 2350038982.

*Jose Luis Albizu eta Lukax Dorransoro*

## Ekainera bitartean, tailer ezberdinak eskainiko dira Arbil jubilatuen elkartearen

Urte berriarekin batera, Arbil jubilatuen elkarteak hainbat ekintza antolatu ditu: erlaxazio tailerrak, memoria tailerra, ordenagailu tailerra eta abar. Adinekoen bizimodua dinamizatzeko proiektuaren baitan antolatu dira ekimenak eta ekainera bitartean egongo da tailerretan parte hartzeko aukera.

Erlaxazio tailerrak astelehen eta asteartean egingo dira, arratsaldez (18:30etik 19:30era). Asteazkenetan, memoria tailerrak eskainiko dira, 18:00etatik 19:00etara; eta, ondoren, 19:15ean, ordenagailu tailerrak izango dira, beste ordubetez. Proiektuaren arduradunek jakinarazi dute ostegunak eta ostiralak bestelako ekimen batzuk egiteko baliatuko dituztela: hitzaldiak, zine proiektzioak, antzerki emanaldiak...



Doakoak dira ekintza guztiak. Interesatuak izena eman beharko dute aurrez Arbil elkartearen bulegoan. Zabalik egongo da astelehen, astearte eta asteazkenetan, 11:00etatik 12:00etara. Bestela, 943 19 29 33 telefono zenbakira deitu daiteke.

## Ikastaro sorta antolatu du Debako Gazte Asanbladak

Sei ikastaro antolatu ditu Debako Gazte Asanbladak datozen hilabetetarako. Inguruko hainbat pertsona eta eragilerekin elkarlanean aurkeztu du bere eskaintza eta ekimenetan parte hartzeko deialdia egin die herritarrei.

Euskaraz egingo dira ikastaro guztiak, doan. Otsailaren 4an amaituko da izena emateko epea.

Urtarrilean hasi eta ekainaren 21a bitartean, adibidez, Manex Astigarragak eta Antton Aizpuruk bertso-eskola ikastaroa eskainiko dute, hasiberrientzat. Larunbat goizetan egingo dira saioak, Gaztetxean.

Jon Montielen gidaritzapean, bestalde, bi ikastaro egongo dira aurrera: batetik, "Ondo jan baliabide gutxierekin" sukaldaritza tailerra, urtarriletik ekainera bitartean -ostiral iluntzetan afaria prestatu eta jateko asmatan- eta, bestetik, Kapoeiraren oinarritzko ezagutza barneratu eta lehen pausoak emateko ikastaroa egingo da martxoko lau larunbatetan.



Blues inprobisazio ikastaroa ere egingo da, larunbat goizetan Gaztetxean, Josu Salegik gidatuta. Eta eskaintzaren baitan datoz, era berean, bestelako bi tailer hauek ere: "Baratzea ezagutuz" (@Agro.Influencer-en eskutik) eta Txalaparta ikastaroa, Gorka Bergaretxe "Pitu" txalapartariak gidatuta.

Ikastaroen inguruko informazio gehiagorako edota izena emateko, idatzi [debakogaztetxea@gmail.com](mailto:debakogaztetxea@gmail.com)-era.



MALEN ALKORTA

### Urteurrena: Elkanoren 500 urte

Aurten Elkanoren mundu biraren 500. urteurrena ospatuko da: munduari buelta osoa ematen lehena izateagatik da ezaguna Juan Sebastian Elkanoren getariarra -1519an abiatu zen Magallanesen gidaritzapean 234 gizonek osatutako espedizioa eta 1522an, hura zendu zelarik, 21 lagun itzuli ziren, Juan Sebastian Elkanoren buru-.

Hainbat ekimen antolatu dira gai honen inguruan, Elkanoren pertsonaia aitazkia hartuz eta bidaia/espedizioa oroitzeko. Administrazio publiko eta politikoko guztiak hartu nahi dute parte: Getariako Udalak, Urola Kosta Udala, Gipuzkoako Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta baita Espainiako Gobernuak eta Erregeak ere. Bakoitzak bere interesei lotuta aurkezten du gertaera: Erregearen hitzetan "Espainiako armadaren aparteko balentria" izan bazen, euskal erakundentzat euskaldunon ordezkari bilakatzen da Elkanoren itsasgizon eta abenturazale gisa. Ikuspegi eta irakurketa ezberdinen gaitetik testuinguru europar batean kokatu behar da bidaia hau, hots: lurralde berriak, bideak eta harremanak sortzearen arrazoi nagusia merkataritza sustatzea bada, lurralde horiek konkistatzea da helburu nagusia. Inperio hitza harrotasunez gogora ekartzen dutenak badira, baina ez dezagun ahaztu horren benetako esanahia beste herrialde bat menperatzea dela: garai hartako gerra eta konkista zirenak oraingo globalizazioa eta garapena dira. Euskaldunok itsasontziak, armak eta itsasgizonak jarri genituen erreinuaren esku, gure lurraldearen garapen ekonomikoa ekarri zutenak.

Hausnarketarako gaia izan daiteke: gerrak eta konkistak ekonomiaren eragile nagusi, gure aberastasuna besteen pobrezia... gertaera historikoen alde bakarreko irakurketa edo europarren nagusitasuna...

## “2008an sortu genuen Animadeba. Euskal Herriko eta inguruotako animazio zinemaldirik zaharrena dela esan dezakegu”

AITOR OÑEDERRA

XI. Animadeba, Debako animazio zinemaldiaren gabonetako azken edizioa ospatu berri dugu herrian, abenduaren 26tik 29ra bitartean. Bost film luze, lau film labur, animazio tailerra eta, nola ez, zinemaldiaren promoziorako izango den gortina aukeratzeko lehiaketa izan ditugu, besteak beste.

Kultur Elkarteko zinema aretoa betea izan dugu egunotan. Wes Anderson-en bederatzigarren luzemetrairekin hasi genuen, *Isle of Dogs* filmarekin. Stop-motion teknikaz egindako irudi bikainek eta emozioz betetako istorio honek zeharo harrapatu zituen ikusleak. Film honi lotuta etorri zen *Puppet Workshop* animazio tailerra; stop motion teknika erabiltzeko panpina nola sortzen den ikasi zuten partaideek Naiara Gallego eta Sergio Martinez profesionalen eskutik. Azken honek Bristol-eko Aardman Animations estudioetan lan egin zuen, eta bertan filmatutako *Harpetarra* Nick Park zuzendariaren filma ikusi ahal izan zuten gazte txoek egun berean.

Amaitzeko, emakume zuzendariak izan genituen laburmetraiak aurkezten. Maria Manero Muro zuzendari nafarrak *Patchwork* film laburra aurkeztu zuen, bere amari buruzko film hunkigarria. Bego Vicariok, Oihana Leundak eta Uxue Reinosak Armintzeko kobazuloari buruzko *Miraila* film esperimentalak erakutsi zuten, making of-arekin batera.

Uxue Reinosaren *Hasiera* lana izan zen IX. Gortina Lehiaketako garailea.



Gortina irabazlea: “Hasiera”



Irudiak: Doxa Producciones

Puppet Workshop tailerra

### “Animaziozko film laburren nazioarteko lehiaketa izatera pasako da aurten Animadeba”

Animadeba 2008an sortu genuen, Udalaren laguntzarekin. Helduentzako animaziozko zinea eta animazio independentea bultzatzea izan ditu helburu jaialdiak; herritarren, haur zein helduen, ikus-entzunezko kultura hezi nahi izan dugu orain arte erakustaldia izan den zinemaldiarekin. Euskal Herrian eta inguruotan dagoen animazio zinemaldirik zaharrena dela esan dezakegu.

Hori dela eta, pauso handi bat ematea erabaki dugu: animaziozko laburmetraien nazioarteko lehiaketa izatera pasako da, hori da aldaketa nagusia. Bertoko nahiz nazioarteko zuzendarien bilgune bilakatu nahi du Animadebak, animaziozko zinemaldien erreferente. Dimentsioak aldatu direnez, Debako Udala eta Kultur Elkartez gain, Eusko Jaurlaritzaren babesa izango du jaialdiak.

Ekainaren 19tik 23ra bitartean ospatuko da Animadeba 2019. Laburmetraiez gain, luzemetraiak, animazio esperimentalak, tailerrak, solasaldiak, musika eta ikuskizunak izango dira herria girotzen. Hori guztia txukun antolatzeko, boluntarioak beharko ditugu jaialdian, zine zuzendariari harrera egiteko, saioetan eserlekuak antolatzeko eta abar. Data hurbildu ahala joango gara beharrak zehazten.



“Isle of dogs” filmaren emanaldia



“Harpetarra” filmaren emanaldia



Gortina lehiaketa, Maxi tabernan



## Martxoaren 31a baino lehen jokatu da II. Sorginetxe Big Wave Erronka

Euskal Herriko olatu erraldioen txapelketa Deban egingo da aurten ere, Euskal Herriko Surf Federazioak (EHSF) II. Sorginetxe Big Wave Erronka antolatu baitu. Urtarrilaren 12tik martxoaren 31ra bitartean jokatu dela iragarri dute antolatzaileek; itsasaldiaren arabera aukeratu da egun bakarreko txapelketa egiteko data zehatza -iazko hitzordua urtarrilaren 18an egin zen eta Indar Unanue surflaria nagusitu zen-.

“Txapelketaren helburu nagusia diziplina honetako euskal surflarien garapena bilatzea da, baita modalitate honetako sailkapen bat burutzea ere”, azaldu du EHSFk. Hori horrela, sailkapen hori etorkizunean sor ditezkeen hautaketa prozesuetarako balia dezakete. Bestalde, erronka horren bitartez, olatu handietako surflari berriak ezagutzera eman nahi dituzte; “eta, bide batez, gaur egun ezagunak direnen oihartzuna handitzen lagundu”.

Open kategorian 18 surflari arituko dira lehian: herriko Zurrumbiloburuetatik bi kide (eta bi ordezkoko), 6



surflari (eta lau ordezkoko) Gipuzkoako Surf Federazioko olatu handietako komisiotik, beste sei (gehi lau ordezkoko) Bizkaiko Surf Federazioko olatu handietako komisiotik eta lau *wild-card* (eta bi ordezkoko) EHSFtik.

Hiru txanda kanporatzaile izango dira, antolakuntzak modu parekaturan antolatuko dituenak (surflari bakoitzaren ibilbidea kontuan hartuta). Erronkan parte hartuko duen kirolari bakoitzak 50 euroko laguntza jasoko du eta txapeldunak, irabazlearen sariaz gain, 150 euro jasoko ditu.

## Urte bikaina izan du Bitor Garitaonandia surflari gazteak



Ander Salegi

Abenduaren 23an Plentzian jokatuak 2018ko Euskal Surf Gazte Zirkuituan (sub18) ere bere trebezia erakutsi zuen Bitor Garitaonandia. 3. postua lortu zuen txapelketan, eta postu horrekin aski izan zuen Euskal Herriko Gazte Zirkuituko lidertza mantendu eta, beraz, zirkuituko txapeldun bilakatzeko.

Zirkuitu horrek lau proba izaten ditu eta Plentziakoa izan zen horietako azkena -aurrez Sopelan, Donostian eta Lekeition jokatu ziren hitzorduak-.

Gazte Zirkuitua irabazi izanaren ondorioz, 2019ko Euskal Herriko Surf OPEN zirkuituko bi probatan gonbidatu bezala parte hartuko du Garitaonandia. Orruan eta Mundakan jokatu diren probetan arituko da gaztea.

16 urteko surflariak denboraldi bikaina egin du 2018an. Euskal Herrian, Espainian, Portugalen eta Frantzian jokatuak 30 bat txapelketan parte hartu du, lorpen ugari eskuratuz. 2019ko martxotik aurrera ekingo dio denboraldi berriari.



IGOR LARRAÑAGA

### Jarioak hor darrai

Urteko gau luzeenak diren egunak gustuko ditut, iraganean pentsatu eta izan nintzenaren eta naizenaren arteko konparaketa bat egiteko; oroitzapenen sabaira osteratxo bat egin eta berreskuratzen ditudan pasadizo eta emozioak abiapuntuz hartuta, orain naizenarekin alderatuz eboluziorik egin dudana jakiteko.

Aurten bereziki kontzientziaturik nago matxismoak eta berak eragiten duen indarkeriak utzitako odol, oinaze eta injustizia jario etengabearekin. Falta izugarria nabari dut ia gizonezko guztiek erakusten dugun erantzukizun eza-rekin, gu arazoaren zati ez bagina bezala, eta gure isiltasunarekin ekintza ororen konplize koldar bihurtuz.

Horregatik, artalde horretatik alden du eta nire gogoeta sintetizatu elkarbanatzea erabaki dut. Nire bizitzan atzera begiratzean gogoratzen ditudan oroitzapenek hotzikarak, lotsa eta nazka sorrazten dizkidatela aitortzen dut, matxista petoa nintzela, mutilak mutil izate hutsagatik neskak baino hobeak izan behar ginen sinesmen zentzugabe eta atzerakoia bainuen.

Azken 20-25 urteetan pentsamolde oker eta zentzugabe asko apurtzeko gai izan izanak gizonago sentiaraztea dakarrit, gizon izateak ere aldatu beharreko estereotipo ugari ditu eta. Adibide kuxuxero moduan, urteak behar izan ditut etxeko eta alaben hazkuntzako lan eginkizunak “partekatsetik”, etxeko lanen eta alaben hazkuntzaren **ardurak** ere partekatseta. Beno, ez nago oraindik ziur lortu ote dudana, baina saiatzen eta lanean nabil. Konturatu gabeko beste hamaika jokamolde eta pentsaera oker aldatzeko izango ditudan bezala.



## Debarrak munduan

### ITZIAR LAZKANO

**37 urte ditu Itziar Lazkanok. Ekonomian doktratu da eta unibertsitatean ikertzaile eta irakasle dabil lanean gaur egun. 2004tik bizi da atzerrian eta AEBetan bizi da orain. Milwaukee hiritik erantzun ditu *Berriketan*-ek egindako galderak.**

#### Non zaude gaur egun? Zergatik?

Gaur egun AEBetan bizi naiz, Wisconsin estatuan, Milwaukee hirian. Tecnaliako lan aukera baten eskutik joan nintzen Ingalaterrara 2004an. Ordutik Kanadan, Norvegian, eta AEBetan bizi izan naiz.

#### Zerk eraman zintuen horra?

Unibertsitateko ikertzaile plaza bat lortu nuen University of Wisconsin Milwaukee-n, eta lan aukera horren bidez etorri nintzen Milwaukee-ra 2011n.

#### Zertan zabilta orain?

Ikerkuntzan eta irakaskuntzan jarraitzen dut. Lana gustukoa izateaz gain, toki eta pertsona interesgarri asko ezagutze-ko aukera ere ematen dit.

#### Espero zenuen bezalakoa da? Zerk harritu zintuen?

Hemengo bizitzaren berri baneukan arren, oraindik ere txoke kulturalak izaten ditut. Adibidez, osasunarekiko duten jarrera oso desberdina da.

#### Zure egunerokoan euskarak zein leku du?

Ez dut euskal hiztunik ezagutzen bizi naizen hirian, baina askotan hitz egiten dut euskaraz etxekoekin eta lagunekin skype bidez. Hortaz gain, euskal irratia entzuten dut batzuetan eta EITBko programaren bat ere ikusten dut tarteka.



**Bertako hizkuntzarik ba al dago hor? Hizkuntza txikirik edo?**

Mundu guztiko jendea bizi da hemen eta hizkuntza asko entzuten dira. Nire lantokian, adibidez, 24 hizkuntza hitz egiten ditugu denon artean.

#### Zer eramango zenuke horra Debatik? Eta zer ekarriko?

Sukaldaritzari eta janariari diogun estimua ekarriko nituzke gustura. Debara, berriz, atzerriko lagunak eramaten ditut bisitan.

#### Debara bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Galdera zaila ipini didazue... Ez dakit, zaila da asmatzen.

### Laburrean

#### Paisaia bat:

itsasoa

#### Usain bat:

kresalarena

#### Zapore edo jaki bat:

arrain-zopa

#### Gustuko dut...

lasai-lasai bazkaltzea

#### Ez dut gustuko...

presaka bazkaltzea

#### Amets bat:

bizikletan bidaiatzea



## 21. Korrikaren ibilbidea aurkeztu dute

**Aurten ez da Deba eta Itziartik pasako, baina bertoko euskaltzaleon parte-hartzea eskatu dute antolatzaileek**

Urtarrileko lehenengo astean ezagutarazi zuen AEK-k 21. Korrikaren ibilbidea [www.korrika.eus](http://www.korrika.eus) atarian kontsulta daiteke-. Edizio honetan, euskararen aldeko herri-lasterketa apirilaren 4an irtengo da Garestik eta, hamar egunez Euskal Herri osoan ibili ostean, Gasteizen amaituko da, hilaren 14an. 2.560 kilometro izango ditu guztira, euskararen alde "Klika" egiteko mezua zazpi herrialdeetan zabalduz. Euskara batuaren urteurrena baliatuta, Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegia omenduko du aurtengo Korrikak.



Zoritxarrez, aurtengo lasterketa ez da Deba eta Itziartik pasako. Ibilbide ofizialetik kanpo geratu gara aurten. Bertoko euskaltzaleon ekarpena eta parte-hartzea eskatu dute, hala ere, Korrikaren antolatzaileek. Apirilaren 12an, ostirala, goizeko 6:00etan iritsiko da lasterketa Mutrikura (Ondarroatik hartuko da), eta Elgoibarrerako bidea hartuko du gero. Bada, Mutrikutik

Mendarora arteko ibilbidearen tarte batean, Olatzetik Sasiolara bitartean, laguntzea egokitu zaigu.

Korrikaren nondik norakoak hizpide hartuta, Korrika Batzordea eratzeko lehenengo bilera deialdia egingo da laster herrian. Adi, beraz, datozen egunotako deialdiei! Beharrezkoa izango da denon laguntza! Egin *Klika*, aukeratu euskara!

## Zabalik dago EuskarAbentura 2019 espedizioan izena emateko epea

Bigarren edizioa izango du aurtengo EuskarAbentura espedizioak. Uztailean egingo da eta 2002. eta 2003. urteen artean jaiotako gazteei zuzenduta egongo da.

Parte hartu nahi dutenek, iaz bezala, motibazio gutuna eta banakako lan bat aurkeztu beharko dute. Lanak hiru gai hauetakoren bati buruzkoak izango dira: "Maite ditut maite gure bazterrak", "Joan-etorriak: migratzaileen testigantzak" edo "Errimak eta erritmoak". Sei formatutan aurkeztu ahalko dira: lan literarioak, musikalak, historikoak, ikus-entzunezkoak, plastikoak eta,

aurten lehenengo aldiz, sormen digitalekoak.

Izen-ematea martxoaren 10a baino lehen egin beharko da, [www.euskarabentura.eus](http://www.euskarabentura.eus) webgunean eta bertan dago egin beharreko prozedurei buruzko informazio guztia.

Lau helburu nagusi ditu EuskarAbentura egitasmoak: hizkuntza-ohituretan eragitea, gazte euskaldunen sare bat sortzea, Euskal Herria ezagutzea eta balore osasuntsuak transmititzea. Ekimena Maule-Lextarren abiatuko da uztailearen 1ean. Getxo izango dute helmuga, uztailearen 31n.



AINARA SEDANO

### Matematika eskasak

2018ak, Espainia mailan, 47 emakumeren gorpuzen zama utzi digu bizkarrean; indarkeria matxistak eraildakoak. Gizonezkoen eskuek asasinatuak.

2003az geroztik 1000 emakume inguru izan direla irakurri dut. Debako herri-gunean bizi garen emakume guztien %45a baino gehiago.

Mila hauek altuera ertaineko emakumeak zirela suposatuko bagenu, oraindik gure artean baleude, eta lerro zuzen bat egiteko elkarri eskua emango balioke, Osioko puntatik Lapari hondartzako puntarainoko giza-kate bat sortuko lukete 15 urtetan zehar. Kontuak ateraz gero, urtero eskutik elkarri heldutako 100 m emakume. Akabatutakoak.

Esku hiltzaile berdinek 27 adin txiki-ko erail dituzte azken 5 urteetan. Matematika azkar bat egitearren, 15 urtetara estrapolatuz gero, 81 gazte inguru. Altueren batezbestekoa kalkulatzeko zailagoa da 0-tik 18 urte bitartera, baina zenbait metro odoltsu batuko genituzke giza-katera. Umezurtzak eta bestelako familia kontuan izan gabe.

Sexu erasoak ere goraka, edo hauen salaketa behintzat. Eguneko 4 sexu eraso; 6 orduero bat, gehiengo absolutua gizonen burutua.

Azkenaldiko emakumeen elkartzeak, bederen, hunkitzen nau. Emakumeak kalean, sare sozialetan, arimako sugarra begietatik dariela, amorru jasanezinezko garrasiak kanporatzen, geure gorputzak geureak direla munduari argi uzten. Gorputz... eta ez gorpu. Falta diren edo bortxatuak izan diren emakume hauen artean egon gaitzkeelako edozein egunetan.

Aitortu behar dut, alabaina, iraultza honetan nahi baino gizon gutxiago ikusten eta entzuten ari naizela matxinadan. Zeri begira zaudete gizonezkoak?







2011n ateratako irudia



2018ko urtarrila



2019ko urtarrila



## Agur Kasinoaren eraikin enblematikoari

1932. urteaz geroztik hondartzako pasealekuan izan dugun eraikina eraitsi dute azkenean. Urte berriari ongietorria egitearekin batera esan diogu agur Kasinoari.

Erabat hondatuta egon da eraikina hainbat urtean. Egituraren egoera eta kanpoko hormen zimenduena kaskartuta zegoen erabat eta, ondorioz, barrualdea eta kanpoko hormak kontserbatzea ezinezkoa zela ondorioztatu zuten adituek -Foru Aldundiko zein Eusko Jaurlaritzako Ondare Historikoaren departamentuetako adituek zein udal arkitektoak-.

Horren ondorioz, duela urtebete, 2018ko urtarrilean, iragarri zuten Udalak eraikina eraitsi egingo zela eta eraikin berriaren sustatzaileei Kasinoa kanpoko irudi berberarekin berreraikitzea agindu ziola: lehengo bolumentria, diseinu, material, harri eta koloreekin. Gainera, sustatzaileek derrigorrez laga beharko dute beheko solairua taberna-jatetxe izateko.

Beharrezkotzat jo da taberna-jatetxea kalearen maila berean jartzea; lokalerako irisgarritasunari begira erabilera errazteko eta hondartzako pasealekuarekin lotzeko. Beheko solairu horren gainean etxebizitzaren solairu bi eraikiko dira.

Pedro Bengoetxea alkateak *Berriketan*-i azaldu dionez, eraikina uste baino beranduago eraitsi dute azkenean. Izan ere, hainbat oztupo izan dituzte azken hilabeteotan -amiantoa, olioia eta bestelako elementu kutsakorrak aurkitu dituzte, adibidez-. Hortaz, baldintza legalak bete eta beharrezkoak ziren baimenak (Ingurumen Sailarenak) lortu ostean, urtarrileko lehen astean eman dute bukatutzat Kasinoaren eraispena.

Tramite guztiak beteta daude dagoeneko. Alkateak adierazi duenez, beharrezko lizentzia dauka enpresa sustatzaileak eta laster ekingo diote Kasino berria eraikitzeke lanei. Gehienez ere bi urteko epean amaitu beharko dituzte obrak.

## Aparkaleku publikoa Danobateko lantegi zaharraren lursailean

Danobateko lantegi zaharra eta haren inguruko lursailek osatzen duten 4.056,50 m<sup>2</sup>-ko lurzatiaren alokairu kontratua sinatu zuen Debako Udalak abenduan. Alokaturako lurrak disuasio-aparkaleku publikoa ezartzeko erabiliko dira hurrengo bost urteetan, Udalak bere webgunearen bitartez azaldu duenez.

“S.Coop. Danobat-en fabrika zaharra zegoen lursaila, erabili gabea eta jarduera industrialik gabea, karguetatik, alokairuetatik eta okupatzaileengandik aske dago. Eta Artzabal auzoaren fatxada-irudian degradazio eta inpaktu bisual nabarmena suposatzen du, Deba ibaiaren eta

bere ibaiertzaren paisaiarako ekintza planak jasotzen duen moduan. Bestalde, Debako Garapen Jasangarrirako Ekintza Planean ere udalerrian ibilgailuentzako aparkaleku guneak ezartzeko zailtasunari aurre egiteko eta hiri kalitatea hobetzeko neurriak aurreikusten direnez, aipatu lursailean ibilgailuentzako aparkaleku publiko berria egitea erabaki du Udalak”.

Udalaren esanetan, Debako Arau Subsidiarioak kontuan hartuta, Artzabalgo lur horien sailkapena eta kalifikazio urbanistikoa aintzat izanik, epe nahiko motzera begira ez da aurreikusten bertan eraikitzeke asmorik, bere ezauga-

rri orografiko bereziak direla eta. “Horregatik, aipaturako lurrak egokiak izan daitezke disuasio-aparkaleku publiko ezartzeko, karabanentzako eta auto-karabanentzako aparkalekua ere izan litekeena”.

Bost urterako alokairu kontratua sinatu du Danobatekin. “Azken hau hasi da dagoeneko bere eraikina eraitsi eta deskontaminatzeko lanekin. Horiek bukatzean, Udalak bere jarduerarako beharrezkoak diren obrei ekingo die”, adierazi du. Kontratuaren zenbatekoa 150.000€-koa (+BEZ) izango da, eta hileko 2.500€ ordainduko ditu.


# Atzamarrarekin buztin bigunaren gainean markatutako lau zaldiren irudiak aurkitu dituzte Ekain kobazuloan

EHUko ikerketa talde batek aurkikuntza berria egin du Ekain kobazuloan. Lau zaldiren irudiak aurkitu ditu, baina Ekaingo gainontzeko margoengatik bereizten dituen berezitasun bat dute kasu honetan: ez dira margotutako irudiak, atzamarrarekin buztin bigunaren gainean modelatutakoak baizik. Erabilitako teknikan legoke, beraz, berezitasun nagusia. “Ekainen badira teknika horrekin egindakoak kontsideratzen diren puntu serieak, baina teknika hau erabiliz egindako animalia marrazkiak aurkitzen diren lehen aldia da”, argitu dio *Berriketan*-i Ekainberriko zerbitzuaren arduradun Aitziber Gorrotxategik.

EHUko Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia saileko Blanca Ochoa ikerlariak sinatu du aurkikuntzaren berri ematen duen artikulua -interneten dago eskuragarri testua, ingelesez: <http://tp.revistas.csic.es/index.php/tp/article/viewFile/772/796->.

Ekaingo haitzuloko irudien digitalizazio lan batzuen tesuingurua egin da aurkikuntza. Argizatze teknika berriek eta argazkigintzan eman diren aurrerapenak ahalbidetu dute gehienbat. Second Canvas Ekain izena du proiektuak eta bere emaitzak Ekainberriren web orrialdearen bidez ikus daitezke -<https://www.ekainberri.com/el-origen/ekain-visita-virtual-second-canvas/>-. Aitziber Gorrotxategik azaldukoaren arabera, hain zuzen, lan horiek egiten ari ziren bitartean, arkeologoek orain arte ikertu gabe zegoen gune bat aztertu zuten eta bertako buztin biguneari atzamarrarekin marraztutako lau zaldiren marrazkiak aurkitu. Horrez gain, gune horretan lehen ere eza gutzen zen marra zizelatu multzo bati begira jarri ziren ikerlariak; marra horiek errinozeronte iletsuak izan zitezkeela interpretatu zen bere garaian, baina orain oreina izan daitekeela uste da. Kobazuloaren parterik sakonenean aurkitzen dira, “Azken Zaldei” deituriko galeriatik gertu.

Noizkoak ote diren irudiak? Bada, Madeleine aldiaren garai aurreratu batean kokatzen ditu EHUko lantaldeak, duela



14.000-12.000 urtekoak izan daitezkeelakoan. Ekaingo gainontzeko margoen garai berdintsukoak edo apur bat berriagoak izan daitezke, hortaz.

“Sorpresaz” hartu dira azken ikerketaren emaitzak; argi geratu da ikerlarien munduan ezaguna den koba batean oraindik ere aurkikuntza berriak gerta daitezkeela.

Lehendik ere “Zaldiaren labar santutegia” izenarekin eza gutzen zen Ekain. Duela 13.000-14.000 urteko *Homo sapiens-sapiens* gizakiek utziriko arte altxor bikain baten gordailua da. Garai hartako gizakiak 60 animalia irudi inguru eta hainbat zeinu eta marka utzi zituen haitzuloan errepresentatuta. Irudi horiek modu ezberdinetan landuak dira, teknika eta estilo anitzak erabiliz, eta askok maisutasun tekniko handia erakusten dute. Irudien artean, itxura eta ezaugarri desberdinak dituzten hainbat zeinuz gain, zaldiak, bisonteak, ahuntzak, oreinak, hartzak, arrainak eta errinozeronte iletsuen adierazpenak ikus daitezke.

## Erriberako baratze proiektuarekin jarraitzeko asmoa du Udalak

Beste bost urtez alokatuko du Udalak erriberako lursaila, bertan baratze proiektuarekin jarraitzeko asmoz. Laneratzeko eta gizarteratzeko zailtasunak dituzten pertsonen zuzenduta dago proiektua; “autonomia personala garatzeko baliabideak eskaintzen zaizkie eta integrazio soziokulturala ahalbidetzen die”. Bertatik jasotako uztaren zati bat proiektuko partaideen artean banatzen da, eta gainontzekoa herriko elikagai bankura eramaten da, behar dutenen artean banatzeko.

Erriberako baratze proiektua duela pare bat urte abiatu zuten Debako Udaleko Gizarte Zerbitzuek eta Karitasek, 1.000 metro karratuko lursail batean. Lurren alokairu kontratua 2016ko irailean sinatu zen lehenbizikoz, urtebeterako; eta, 2017ko uztailean, alkatetza dekretu bitartez hitzarmena luzatzea erabaki zen, beste urtebeterako.

Udaleko Gizarte Zerbitzuek, lanbide-baratzearen kudeaketaren ardura duten aldetik, baratze okupazionalen zerbitzuaren balorazio positiboa egiten dute; gainera, aipatutako lurra

baratze proiektu gisa erabiltzen jarraitzeko egokiak direla uste dute. Horregatik erabaki du Udalak lur horiek beste bost urtez alokatzea; epe hori hiru urtez luzatu ahal izango da eta alokairuaren urteko kuota 1000 euro +KPI izango da (sei hileko bi kuotatan ordainduko da).

Bi urteotan 26 partaide izan dira proiektuan, Udalak emandako datuen arabera. Gaur egun, Karitaseko bizpahiru boluntarioren eta Udaleko teknikari baten gidaritzapean, sei pertsona ari dira bertan lanean.

## Literatur lanak aitona-amonentzat

58 ikaslek parte hartu dute Arbil elkarteak eta Mendata institutuak elkarlanean antolatutako literatur lehiaketan



Ander Salegi

Ezer egiten hasi haurretik, ZER eta NOLA galderei erantzun behar izaten diegu kontzienteki edo inkontzienteki.

ZER galderari erantzun beharrik ez dugu izan orain hizketagari dugun jardunari ekiterakoan: irakasleak esan dizue zuei, idazlan hau agintzerakoan, eta Zaharren Elkarteak niri, zuen lanen balioak neurtu eta hiru onenak aukeratzeko eskatzean.

NOLA, adar asko dituen galdera dugu. Irakasleak agindua denez, mendekotasun kutsua darama eginbeharrak. Lanak epaimahai batek kalifikatu behar dituzenez, erabateko azterketa itxura du ekitaldiak.

Gai orokorra emana etorri zaizue: AITONA-AMONAK. Idatzian biografia, saiakera edo ipuin tankera erabiltzea izan du norberak bere esku. Hauek honela, idazle bakoitzak gogoz, gogo gabe edo gogoz kontra ekin dio lanari; eta, noski, baldintza horiek zerikusirik handia izan dute, ohi bezala, idazlearen jarreraren eta lanaren etekinean.

Hasi naiz irakurtzen. Bai, txukun samar idatziak datoz lehen multzoko

lauzpabost, nahiz eta ahaleginak burua gehiegi nekarazi dien antzik ez duten; oso arrunt idatziak, gramatika huts eta guzti. Ez nau larregi harritu; adin honetako gramatika ondo ikasia dute denek; eguneroko herri erabilera arruntean, ordea...

Halako batean, Gasteiztik etorri den eskutitzak bere lehen paragrafoaren, "Ez dakizu zer pozik jarriko nintzatekeen, ondo zaudela esango bazenit", bukaerarekin alaitu dit kopeta. Honek ez du arruntetik ezer. Ahalegin berezia egiten ari zen hau idatzi duen ikaslea, lan dotorearen bila ari zen, pozik, artista bat buruak sortu dion irudi ederra zertzerakoan bezala, irakasleak agindua egin eta kito geratu beharrean.

Ez da bakarria izan, noski. Etorri dira gehiago eta hobeak ere bai. "Hegazkinetik ateratakoan, geure motxilak bizipen berriz beteta, bakoitza bere etxera joan ginen, atsedena hartzarekin batera, bizitakoaz gogoeta egin eta gozatzeraz", bukatzen da KANADARA BIDAIA.

"... Aitona ezin izan nuen ezagutu, ni jaio baino lehenago hil baitzen... Aitonari

buruzko hutsune handiak ditut; baina, hori ez ba beti txarra; izan ere, nire aitona batzuetan pirata bat da, beste batzuetan astronauta bilakatzen da eta, inoiz, oihan barneko tribuko errege ere imajinatu dut..." irakurri dut AITONA PIRATA EDO ASTRONAUTA izenburu daraman istorioan.

Aipatzea merezi zuten eta aipatuak daude.

Hobeak ere badirela esan dut, ordea, eta AMONAREKIN AMETSETAN izenburu daraman hiru garren saria merezi du. Idazlea: June Etxabe.

AITONA-AMONAK izenburu daraman bigarren saria merezi du. Nagore Zulaika da idazlea.

EGUNEROKO MAITEA izenburu daraman lehenengo saria merezi du. Idazlea: Marina de Anta.

Eskuineko orrialdean daukazue lehen saria lortu duen idazlana, irakurgai. Saria jaso duten beste bi lanak **Berriketan**-en otsaileko alean argitaratuko ditugu.

Lukax Dorronsoro



**SUKIA**  
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



## Eguneroko maitea

2016ko urtarrilaren 17a

Eguneroko maitea:

Ni Hugo naiz, 10 urteko mutikoa. Oso alai naiz, orain arte behintzat. Arreba bat dut, Naia izenekoa, 3 urte dituena. Batzuetan jasanezina da, ez da geldi egoten! Nire amaren izena Alaia da, eta ilehoria da. Aita ere badut, baina batzuetan edukiko ez banu bezala sentitzen naiz; egun guztia lanean ematen du, gaueko 10ak aldean etortzen da etxera eta, gainera, asteburuetan beti du bileraren bat.

Ross-en bizi gara, Kaliforniako herri batean, baina lehen askoz ere hobeto bizi ginen, Elantxoben, amamarekin, lagunekin... Nire aitaren lanpostu zikin haren erruz aldatu dugu geure bizilekua.

Niretzat amama oso berezia da; badakit, guztiek esaten dute berdina, baina niretzat berezi-berezia da. Beti dago hor, edozer gauzarako. Nik nire amona miresten dut, mundu honetan dagoen pertsona onena da, dudarik gabe. Aitxitxa ere badut, edo hobeto esanda banuen, 3 urte nituela hil baitzen. Niretzat amona bezalakoa zen aitxitxa, berezi-berezia. Baina hil zen egunetik aurrera, munduko onena amama da, eta zeruko onena, aitxitxa.

Nire amonak beti esan didanez, arazo okerreza pozik ez bizitzea da. Eta nik Ross-eraren etorri ginenetik arazo hori dut, horregatik hasi naiz eguneroko honetan idazten. Nire arazoa etxean kontatuko banu, hauxe esango lidakete, seguru nago:

-Hugo, lasai egon, hori denbora kontua da, ohituko zara. Denbora apur bat pasatzen denean ikusiko duzu, oso gustura egongo zara hemen.

Nik badakit hori gezurra dela, igarri egiten dut, seguru nago ez dela denbora kontua. Beraz, arazo horri konponbide logiko bat bilatzen saiatzen ari naiz.

2016ko urtarrilaren 19a

Eguneroko maitea:

Azken egunetako egoera berdinean jarraitzen dut gaur ere. Baina gauza bat bururatu zait: nire amonari kontatzea; baina nola? Telefonoarekin? Konturatu egingo dira; izan ere, ez dut mugikor propiorik.

2016ko urtarrilaren 20a

Eguneroko maitea:

Egunak luzeak egiten zaizkit, arazoari konponbidea aurkitzeko esperantzan. Baina momentuz ez dut konponbiderik aurkitu.

2016ko urtarrilaren 22a

Eguneroko maitea:

Gaur ez nator betiko kontuarekin. Konponbide bat aurkitu diot nire arazoari: amonari karta bat idatziko diot.

2016ko urtarrilaren 23a

Eguneroko maitea:

Gaur, eskolatik etxerako bidean karta idazteko postal bat eta zigilu bat erosi ditut herriko kioskoan. Eta etxera iritsitakoan idazten hasi naiz nire logelan; inor ohartu gabe, hauxe idatzi dut:

"Ross-en, 2016ko urtarrilaren 23an  
Kaixo, amama:

Hugo naiz. Laguntza behar dut, ez naiz pozik bizi hemen, hau da, inoiz inork izan dezakeen arazo larriena dut. Ez naiz lehen bezain alai bizi: egunak oso luzeak egiten zaizkit, eta oso aspergarriak; horrez gain, lagunekin ez dut oso ondo pasatzen. Ez diet gurasoei ezer esan, ezta kontatzeko asmorik ere. Lagunduko didazulakoan nago.

Muxu potolo asko, Hugo".

2016ko otsailaren 13a

Eguneroko maitea:

Gaur amonaren eskutitz bat jaso dut, la-

Marina de Anta (1. saria)

gunduko zidala zioen, baita bere ustez gurasoei kontatu beharko niekeela ere. Ez dut uste hori egia denik, badakit zer erantzungo duten eta.

2016ko otsailaren 14a

Eguneroko maitea:

Gaur gurasoei kontatzeko asmorik ez dudala idatzi diot amonari eskutitz batez baliatuta.

2016ko otsailaren 26a

Eguneroko maitea:

Gaur amak eta aitak nirekin hitz egin behar dutela esan didate, eta amonak nik kontatutakoa kontatu diela gaineratu. Ezer gehiagorik esan gabe ohera joan naiz, amamarekin oso haserre, huts egin didalako, ez nuen beregandik hori espero.

2016ko otsailaren 27a

Eguneroko maitea:

Gaur ez dut hitz egiteko batere gogorik.

2016ko martxoaren 3a

Eguneroko maitea:

Orain ulertzen dut zergatik egin didan hori amamak. Niregatik egin du, bazekielako, amak eta aitak hori jakin bezain laster, berriro Elantxobera itzuliko ginela. Bai, ondo irakurri duzue, Elantxobera itzuliko gara!

2016ko martxoaren 31a

Eguneroko maitea:

Gaur Elantxobera goaz, iritsi da eguna! Gogo handia dut.

2016ko apirilaren 1a

Eguneroko maitea:

Gaur amama ikusi dut, korrika joan naiz bera besarkatzera, eta zera esan diot:  
-Eskerrik asko, asko maite zaitut!!!



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

LENTZERIA



Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

**URTARRILAK 18, OSTIRALA**

-Ainhoa Beristainen kontzertuetako argazki erakusketa zabalzen da Itziarko Burugorri ostatuan. Martxora bitartean egongo da ikusgai.

**URTARRILAK 25, OSTIRALA**

-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea, plazan.  
-22:00. **"Jainkoak ez dit barkatzen"** dokumentalaren emanaldia, Debako Kultur Elkartean.  
-22:30. **Kontzertuak Gaztetxean:** Negudak, Mc Onak eta Dj Bull (sarrera mugatuak, Maxin eta Borborren, 5 euroan).

**URTARRILAK 26, LARUNBATA**

-19:00. **Kontzertua:** Kantaka abesbatza, Itziarko santutegian.

**URTARRILAK 29, ASTEARTEA**

-17:00. **Loregintza ekologikoa,** Kultureko patioan, Debanaturaren ekimenez.

**URTARRILAK 30, ASTEAZKENA**

-19:00. **Sendabelarren ikastaroa,** Debanatura elkartearen ekimenez, Kultur elkartean.

**OTSAILAK 1, OSTIRALA**

-23:00. **Kontzertua:** Mobydick, Itziarko Burugorri.

**OTSAILAK 2, LARUNBATA**

-9:30. **Block Printing tailerra,** Alex & Quim-en

eskutik, San Roke kaleko Katamar dendan. 16 urtetik gorakoentzat.

-11:00. **"Debako paduretako orientazio martxa libera, zabor bilketa eta argazki rallya"**, Debanaturaren eskutik (Hezeguneen Eguna ospatuz).

**OTSAILAK 3, IGANDEA**

-San Blas eguna.

**OTSAILAK 4, ASTELEHENA**

-Santa Ageda bezpera.

**OTSAILAK 9, LARUNBATA**

-8:30. **Santa eskea,** Itziarko plazatik hasita.

**OTSAILAK 10, IGANDEA**

-12:00. **Bisita gidatua: "Gotikoaren altxorra, Deban"**. Santa Maria eliza ezagutzeko aukera. Bisita euskaraz egingo da. Informazio gehiagorako: [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus).

-17:00. **Ipuin kontaketak.** Agirre jauregiko ispiluen gelan. 17:00etan, Haur Hezkuntzakoentzat/18:00etan, Lehen Hezkuntzakoentzat.

**OTSAILAK 17, IGANDEA**

-8:30. **Mendi irteera,** Burdin Kurutz eta Luzarok antolatuta: Urkiola-Urkiolagirre-Atxarte.

**OTSAILAK 22, OSTIRALA**

-17:00. **"Lapurrak eta iruzurrak"** prebentziorako hitzaldia Agirre jauregiko ispiluen gelan.

**KZguneko eskaintza**

-KZguneak goizeko ordutegia izango du urtarrilean eta arratsalde arituko da otsailean. Hainbat ikastaro eskainiko dira bertan: sare sozialak 2.0, smartphoneak eta tabletak, software librea... Informazio gehiagorako: 943 02 36 29 telefono zenbakia edo [www.kzgunea.eus](http://www.kzgunea.eus) ataria.

**Odola emateko deialdia**

**Odol-transfusioa eskubide bat baldin bada....**

**Odola emateak erantzukizun partekatua izan beharko luke**

Datorren otsailaren 15ean (ostirala) odola emateko saio berri bat burutuko da, arratsaldez (17:00-20:30), Luzaro ikastetxean (Iifar kalean). Debako Odol Emaileen Elkarteak antolatuta du saioa eta bertan parte hartzeko deialdia egin du.

**Literatur lehiaketa**

-Abian jarraitzen du Cardenas Fundazioak eta Debako Udalak antolatutako V. literatur lehiaketak. San Roke ermitari buruzko idatziak aurkeztu beharko dira, martxoaren 17a baino lehen, Turismo bulegoan. 100 hitz baino gutxiago izan behar dituzte idatziek eta paperean edo formatu digitalean aurkeztu daitezke. Bi modalitate daude lehiaketan: euskarazkoa bata eta gaztelaniazkoa bestea, eta bi sari egongo dira jokoan sail bakoitzean. Informazio gehiagorako: [www.deba.eus](http://www.deba.eus).

**Ikastaroak Gaztetxean**

-Gazte Asanbladak ikastaro sorta antolatuta du datozen hilabetetarako. Izena emateko epea otsailaren 4an amaituko da. Informazio gehiagorako, jo aldizkariko 7. orrialdera edo idatzi [debakogaztetxea@gmail.com](mailto:debakogaztetxea@gmail.com)-era.

**ZAINTZAKO BOTIKA**

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **otsailak 1, 2, 3, 11, 12, 13, 14.**

Burgoa Zuazo: **urtarrilak 28, 29, 30, 31. otsailak 15, 16, 17.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

**DEBAKO BOTIKAK**

ZALDUEGI: **669 262 201**

BURGOA ZUAZO: **667 338 890**

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: otsailak 2 eta 9

BURGOA ZUAZO: urtarrilak 26 / otsailak 16

**9:30 - 13:00**

**Uzuri**  
optika audio  
[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

**ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN**



Ostolaza, 7  
20820 DEBA  
Tel: 943192192

RPS: 183/12



**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: [andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)

Tlf: 685 703 843



MARJE CASTRO IRIBARREN

- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

MASAJISTA

**28 URTEKO ESPERIENTZIA**

Tel.: 677 557 615

**DEBA**

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel./faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
[mikeliturgintza@euskalnet.net](mailto:mikeliturgintza@euskalnet.net)  
[www.mikeliturgintza.com](http://www.mikeliturgintza.com)

RAIKETAK S.L.

**SAGARMIÑA**

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 282

[sagarmina@sagarmina.com](mailto:sagarmina@sagarmina.com)  
[www.sagarmina.com](http://www.sagarmina.com)

**atari**

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel.: 943192263  
[www.atarideba.com](http://www.atarideba.com)

**Lizaso**  
Autozerbitzua

Lernedi kalea, 21  
Tlfnoa: 943 19 27 29



**k**

**kutxabank**

**ALBIZU**

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**

TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**urlo**

SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Nº 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
[urlo@urlosi.net](mailto:urlo@urlosi.net)

**Taxi Alain Deba**

LIZ.-ZK.: 3

WiFi

[www.alain.taxideba.eus](http://www.alain.taxideba.eus)

**636 135 008**  
[alain@taxideba.eus](mailto:alain@taxideba.eus)

**G**

**JOXEAN GALDONA AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA  
Odontologia orokorra,  
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea  
Tel.: 943 192 819  
20820 Deba

**ASKETA, S.L.**

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:  
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: [asketa@telefonica.net](mailto:asketa@telefonica.net)  
[www.asketa.net](http://www.asketa.net)

ALMACÉN:  
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

**K21**  
KALITATEA  
Enpresa Registrada Nº 21 05 / 049  
NIVEL 2

Jarri zure publizitatea Berriketan aldizkarian!

**943 191 383**

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)



2019an ere  
EUSKARAZ  
biziko  
gara

ASPALDIKO!

EUSKARA

BERRIRO

ZURE

BIZITZAN.

18-19 IKASTURTEA

Matrikulaldia zabalik

Izena emateko epea  
otsailaren 8ra arte.

Langabetu, ikasle eta gurasoek  
MARIKULA ERDIA

Bekatze sistema  
ikasturte bukaeran

Etor zaitetz eta informazio  
guztia emango dizugu.

UDAL  
EUSKALTEGIAK  
euskara klaseak - clases de euskera

[www.udaleuskaltegiak.eus](http://www.udaleuskaltegiak.eus)



DEBABE UDAL EUSKALTEGIA  
Ifar Kalea, 12 - Tel.: 943 192 236 (Deba)  
943 742 731 (Elgoibar)

[udaleuskaltegia.deba@debabe.eus](mailto:udaleuskaltegia.deba@debabe.eus)